

NATURA 2(1)

Animaliak

1. Zer animalia-motak ez daukate ez barne-eskeletorik ezta bizkarrezurrik?

- ☐ Arrainek.
- ☐ Narrastiek.
- ☐ Ornogabeek.

2. Arrainek uretan disolbatuta dagoen oxigenoa hartzen dute...

- ☐ Zakatzen bidez.
- ☐ Trakeen bidez.
- ☐ Biriken bidez.

3. Animalia hauek mihi itsaskor luzea izan ohi dute harrapakinak harrapatu ahal izateko

- ☐ Anfibioek.
- ☐ Hegaztiek.
- ☐ Arrainek.

4. Ornodun hauek ezkata iragazgaitzez estalita dagoen azal lodia dute:

- ☐ Arrainek.
- ☐ Ugaztunek.
- ☐ Narrastiek.

5. Ornodun hauek gorputza lumez estalita dute:

- ☐ Anfibioek.
- ☐ Hegaztiek.
- ☐ Narrastiek.

6. Monotremak, martsupialak, eta karendunak mota honen barruan sailkatzen dira:

- ☐ Narrastiak.
- ☐ Ugaztunak
- ☐ Hegaztiak.

7. Belakiak...

- ☐ Poriferoak dira.
- ☐ Knidarioak dira
- ☐ Moluskuak dira.

8. Olagarroak, txibiak eta sepiak...

- ☐ Zefalopodoak dira, oin moduan garro-koro bentosaduna edo gakoduna dutelako.
Bibalbioak dira, hareatzen zuloa egin ahal izateko
- ☐ aizkora-itxurako oina eta bi kuskuko maskorra dutelako.
- ☐ Gasteropodoak dira, oin zapala dutelako horren gainean narras ibiltzeko.

9. Moluskuen gorputza atal hauetan banatzen da:

- ☐ Burua, errai-masa eta oina.
- ☐ Burua, enborra eta hankak.



10. Artropodo talde hau bereizten da hamar hanka izateagatik, besteak beste:




- ☐ Araknidoak.
- ☐ Krustazeoak.
- ☐ Intsektuak.

Osatu taula hau:

ANIMALIA	Ornoduna/Ornogabea	TALDEA
Lur-zizarea		
Muskuilua		
Elefantea		
Anemona		
Zikoina		
Izurdea		
Sardina		
Muskerra		
Apoa		
Eltxo		
Itsas-trikua		

Idatzi marrazkietan adierazten diren animalien zatien izenak.





Idatzi marrazkian adierazten diren zatien izenak.

